



Ikasgela irekia

Ahozko adierazpenaren gaineko hainbat gogoeta

Rafa Ugalde

Artikulu honetan, gure ikasleek, euskaltegietako ikasleek, euskarari lorzen duten mintzamenari buruzko gogoetatxo bat egin nahi izan dut: zer egiteko kapaz diren euskaltegiko prozesua amaitzen dutenean, eta zer hutsune duten. Eta hutsune hori zenbateraino den gure (irakasleon) erantzukizuna eta non dagoen konponbidea, baldin eta balego, jakina. Bildu ditugun datuak ez dira, beharbada, zehatz-zehatzak izango; baina, bai, geure ikaslearen artean ikusitakoak eta azken urteotako esperientziari zuzen-zuzen lotuak.

Sarrera

Nire ustez, hainbat urtetan euskara irakasten ibili izan garenok ondorio berbera ateratzen dugu, ikusi eta gero EGA, HAEEren 3. HEa edo Hezkuntzaren 2. HEa egiaztatzeke azterketetara aurkeztzen diren ikasleei zer gertatzen zaien. Badakigu, aldezturik, zein azterketa-mota izango duten: testu baten ahozko laburpena egin, gairen bat ahoz garatu, gairen bat idatziz garatu... Badakigu, beraz, norantz jo behar dugun. Are gehiago, ikasleak berak ere badaki azterketarako zer behar duen. Eta eskatu ere eskatzen du. Eta, hori oinarri hartuta, teknikak lantzeari ekiten diogu.

Horrela bada, gaiak garatzeko teknikak lantzen ditugu: sarrera zelan egin; eskematxo bat, prestatu eta gero, puntuz puntu garatu; amaiera, etab. Atal horiek prestatzen ikasteko ere denbora-tartetxo bat hartzen dugu, eta, hala, pausoz pauso ikasten dute ikasleek gaiak garatzen. Gaion aurkezpena ikas-kideen aurrean egiten dute. Eta horrek urduritasuna sortzen dienez, horrelako egoerekin ohituz doaz. Azkenean, euskaraz oso zuzen jarduten ez dutenek ere ikasten dute gaiak nahikoa ondo garatzen. Izan ere, ikasle asko

eta asko gai dira zuzen idazteko, pentsatu egin dezaketelako. Hainbeste gai prestatu eta aurkeztu ostean, pentsatzeko eta ideiak antolatzeke duten denbora lagun, kapaz dira aurkezpen politak egiteko. Baina arazoak sortzen zaizkie ideia horiek berak ahoz adierazi behar dituztenean

Azterketak egindakoan denok egoten gara emaitzen zain. Eta beti izaten da ustekaberen bat. Guk ezagutzen ditugu geure ikasleak beste inork baino hobeto. Eta gaituzten zerrendan beti agertzen dira guk ezgaituztat emango genituzkeen batzuk eta, alderantziz, badira-eta maila oneko ikasle batzuk ere gaituzten ez dutenen artean, lar urduri egon direlako edo. Dena den, eurekin egunero egoten garenok badakigu jakin, gehienak direla kapaz gai bat nahikoa modu egokian aurkezteko.

Nolanahi ere, goizago edo beranduago denek gaituzten dute zorioneko azterketa hori. Gaur egun, ikasle horiek, gehien-gehienetan, irakaskuntzan arituko dira; batzuek zorte apur batekin gaztelaniaz baino ez dute irakatsi beharko, zorte txarrekoek (euskaraz hobeto ikasi nahi balute zorte onekoak), oster, euskaraz irakatsi beharko dute. Eta orduantxe hasiko dira komeriak! Ondorioa, bada, sarri askotan berriro euskaltegira joan beharra izaten da.

Berriro euskaltegira

Aipatutako traba horien ondorioak ikusten hasiak gara euskaltegietan. Hona hemen, Zornotzako Barnetegian azken urteotan nabaritu izan duguna.

Badira zortzi bat urte Zornotzako Barnetegian, udako ikastaroetan, EGAdunentzako edo tituludunentzako ikastaroak antolatzen ditugula. Hasieran, guk geuk eskaintzen genuen programazioa, aski lotua. Denbora iragan ahalean, zenbait saio ireki utzi ditugu ikasleen beraien eskarietara edo lehentasunetara makurtzeko. Beraz, azken urteotan, oinarrizko programazio bat eskaini izan badugu ere, ikasleek beraien interesak zein diren adierazi digute. Eta horietara egokitzen ahalegindu gara. Baina, aitortu behar dugu apur bat harritu gaituela ikasleen lehentasunak zein izan diren entzuteak, baita ikasleen maila zein den ikusteak ere. Azter ditzagun bada, ikasle-profila eta azaldu ohi dizkiguten lehentasun horiek.

Ikasle-profila

Oro har, ikasleak ondoko multzoetan bana ditzakegu:

- Irakaslea, tituluduna eta laster euskaraz irakasten hasi beharko duena.
- Irakaslea, tituluduna eta, jadanik, euskaraz irakasten ari dena.
- “Satelite” ez-ohikoren bat. Eta esateko modu hori erabili dut oso gertaera bakana izaten baita, horrelako taldeetara bestelako ikaslerik etortzea: benetan sakondu nahi duena edo irakaskuntzan ez dabilena, alegia.

Ikasleen lehentasunak

Eskarien artean usuenak honako hauek izaten dira:

- Beraien irakasgaiari buruzko gaiak aurkeztea.
- Aditza berrikustea.

- Herri-hizkera. Batez ere bizkaierazko grabazioak eta azpieuskalkiak. Bizkaiko herrietako eskoletan lan egiten badute ikasleen euskalkia entzun beharko dute.
- Eguneroko jardueran, ume txikiekin eskolan, edozer irakastea, sortzen zaizkien zalantzak argitzea: esapide bereziak etab.
- Mintzamena lantzea. Euskaraz irakasten ez dutenek ez baitute aukerarik euskaraz egiteko.

Kezkatzekoa da, nire ustez, aurreko zerrendako eskariak ikasleek egin izana. Ulertzekoa da, bestalde, seguruago jarduteko baino ez bada ere, ikasle batek irakatsiko duena landu nahi izatea, baita horren gainean gairen bat prestatu eta ikaskideen aurrean aurkeztu nahi izatea ere; zeren-eta, are euskaraz egiteko nahikoa gaitasun duenak eta hizkuntza ondo erabiltzeko kapaz denak ere, izan bailezake zalantzaren bat gai jakinen bat azaltzekoan, eta, ondo etor lekiok arlo hori apur bat lantzea. Zalantza handiak ditut, ordea, ikasleek egiten dituzten gainerako eskariekin. Aztertu ditzagun horiek banan-banan.

Aditza berrikustea

EGAtik gorakoa ote da, bada, aditza berrikustea? Nire ustez, aditzaren aspektua, guztiz erdaldunduta daukaguna, aztertzea, edota aditz bereziren bat, hitanoa, etab., izan litezke EGAtik gorako langaiak, baina ez aditz gutzia orokorrean.

Herri-hizkera

Bizkaia aldean batuaz baino ez eta euskaltegian beste inon ez ikasi duenarentzat, arazoa izan liteke herrietako eskoletan-eta lanean ibiltzea, umeek eta gazteek euskalkian hitz egingo baitute. Dena den, zertan gabiltza gure ikasleek hainbat ordu eta urte euskaraz ikasten eman ostean, ez badira kapaz Bizkaia aldeko hainbat lekutan (Bilbo Handia kenduta Bizkaia osoan) eroso moldatzeko, ulermen-mailan baino ez bada ere? Bidezkoa ote da Bizkaiko euskaltegietan ikasten duten ikasle askok eta askok *nola, nolakoa, gaizki, ongi...* eta horrelakoak baino ez erabiltzea; eta inoiz ez: *zelan, zelakoa, txarto, ondo* bezain gauza simple eta errazak, eta askotan zer esan nahi duten ere ez jakitea? Normala ote da Bizkaiko hainbat ikastegitatik datozen ikasleek aitona eta amona baino ez esatea, are eta txikitan aitita eta amama besterik erabili ez dutenek ere? Tokian tokikotasuna ez al da egokitasuna? Ez genuke kurrikuluan horrelakorik jaso behar?

Eguneroko jardueran sortzen diren zalantzak

Bene-benetan txundituta gelditu nintzen horrelako ikastaro batean, ikasleei umeekin eguneroko jardueran dituzten zalantzen zerrenda bat egiteko eskatu eta ondoko zerrendako esaldiak irakurri nituenean.

Zelan esango zenuke euskaraz:

¡Olvídame!

¡Que te den dos duros!

¡A mí no me hables en ese tono!

¡Eres un plasta!
Falta de respeto
Para ser tratado con respeto...
¡Qué pesado eres majito!
¡Encantada de conocerte!
¿Qué de cháchara?
Comerse el tarro
¡Pero te vas a callar!
¡No os empujéis!
No te cortes
No pierdas el tiempo
¡Estoy harta!
No aprietes tanto el boli
¡No seas respondón!

Zer EGAdun, PERFILdun edo TITULUdun-mota ari gara lortzen, gero ez bada kapaz esateko *ez egizu/ezazu boligrafoa hainbeste sakatu* edo *ez zaitetz astuna izan* edota *niri ez eistazu holan barbarik egin* (zer esanik ez, Bizkaiko errietan *niri ez eistazu* esan behar lukeela *niri ez iezadazu horrela hitz egin* barik, naturaltasunaren gutxienekoa bete gura badu behintzat).

Sinestezina iruditzen zait tituludun batek eta irakasten arituko den batek horrelako gabeziak edukitzea; baina dudarik gabe euskararen irakaskuntzan daukagun hutsune bat, berandu baino lehen bete beharrekoa, ikustendut horretan. Arestiangoz zerrendari erreparatuz gero, gehien-gehienak, harridurazko esaldiak dira, aldameneko jendearekin egunero-egunero erabiltzen ditugunak eta komunikazio *natural edo errealerako* –askotan ez baititut ondo bereizten bata eta bestea, edo ez dakit bien artean alderik dagoen ere– ezinbestekoak.

Arlo honi buruzko gogoetatxo bat aspaldi egin nuen (HIZPIDE 36), irakasleok ahalegin handiagoa egin behar genuela azpimarratuz. Ez hain aspaldi, 1998ko azaroko AULA aldizkarian, Gloria López Téllez-ek “*El lenguaje formulaico: herramienta para la comunicación en el aula de lenguas extranjeras*” artikuluan irakasleak darabilen hizkuntza edo hizkera-mota azpimarratzen du. Bertan, *lenguaje formulaico* izenekoaren garrantzia aipatzen du, hau da, zenbait egoeratan irakasleak sistematikoki darabilen hizkera zein esapideak, eta ikasleek buruz eta moldeak bailiran ikasten dituztenak. Horrelako esapideak jatorrizko hizkuntzan ere ikasten dira buruz eta hizkuntza horren zama sozial eta kulturala daukate gibelean; zama sozial eta kultural hori ez da erraz islatzen ikasgelan, baina irakasleak zenbat eta gehiago erabili, orduan eta aukera handiagoa izango dute gure ikasleek ikasteko. Esango nuke, bada, gure ikasleek batzuetan input errepikakorra ere behar dutela, eta irakasleok gogoetatxo bat egin beharko genukeela ikasgelan darabilgun berbakeraren gainean; azken batean, naturaltasuna ez da egokitasuna eta zuzentasuna, ala?

Mintzamena lantzea

Gaur egun, titulu baten jabe izan eta eskola zein institutu publikoetan lanean ari direnek euskaraz egiteko aukerarik ez dutela entzutea larria iruditzen zait benetan. Eta ez dut uste arazo horri euskaltegieta dihardunok erantzun handirik eman diezaiokegunik. Batzuetan pentsatzen dut ez ote zaizkigun, egunen batean, euskaltegiak mintzategi bihurtuko.

Ondorioak

Aurrekoak aztertuta, honako ondorioak ateratzen ditut:

- 1 Ahozko adierazpena gidatua denean, hau da, gairen bat prestatu teknika jakin batzuei jarraituz, aldeztu aurretik pentsatutakoaren arabera gaia aurkeztu, etab., polito egiten dute ikasleek.
- 2 *Lau horma arteko hizkuntza* irakasten arrakasta dugula esango nuke.
- 3 Hizketaldia bat-batekoa denean, ordea, gehien-gehienek egiten dituzte hainbat akats.
- 4 Emozio-zama duen hizkuntza irakasten, ez dakit dakigun. Eta jakin ere ez dakit horrelakorik lau horma artean irakas litekeen ere. Hori kalean eta hiztun zaharrekiko harremanetan baino ezin dela ikasi uste dut.
- 5 Emozio-zamarik gabeko hizketa komunikazio mugatua baino ez da. Eta hiztunak berehala joko du erdarara, naturalagoa eta errealagoa egiten baitzaio.
- 6 Ikasleak hizkuntza euskaltegitik kanpo lantzerik ez badu, edo lantzen ez badu, herren ibiliko da beti, hizkera artifiziala eta osotu gabea erabiliko du. Ondorioz, bere lanean ikasleekin erabiliko duena horrelakoxea izango da eta sorgin-gurpil batean sartuta egongo da.

Bibliografia lagungarria

- Atienza, J. 1998. *Emoción y aprendizaje de lenguas extranjeras*. AULA 76.
- Tordesillas, M. 1998. *Sobre la interpretación: lengua y emoción*. AULA 76.
- López Téllez, G. 1998. *El lenguaje formulaico: herramienta para la*

comunicación en el aula de lenguas extranjeras. AULA 76.

- S. Salaberri, S. 1993. *Uso del inglés en el aula*. Heinemann.
- Ugalde, R. 1996. *Esapide esklamati-boen ildotik jatortasunerantz*. Hizpide 36.